

**AHOLKUAK ASEGURUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOAK estaltzen dituen EZBEHARREK  
kaltetutako ASEGURATUENTZAT**

**Aseguru-poliza badugu, harremanetan jarriko gara zuzenean Aseguruen Konpentsazio Partzuergoarekin, edo Polizaren Aseguru Bitartekariarengana joko dugu.** Ezbeharrak eragindako kalteen berri emango dugu: etxebizitzan edo komertzioan izandako kalte materialak, haien edukian izandakoak, eraikinak izan ditzakeen kalteak (fatxadak, egiturak eta instalazio finkoetan), kalteak autoetan, eta kalte pertsonalak (halakorik izanez gero).

**A) Nola eman ezbehar baten berri Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari?**

- 1.- Telefonoz: 902 222665
- 2.- Web bidez: [www.consorseguros.es](http://www.consorseguros.es). Egiaztagiria edo NAN elektronikoa izanez gero soilik.
- 3.- Partzuergoaren bulegoan:

• **GIPUZKOA:**

Getaria, 2  
20005 – Donostia  
Tel.: 943 43 37 60  
Fax: 943 43 37 61  
[ccssansebastian@consorseguros.es](mailto:ccssansebastian@consorseguros.es)

• **NAFARROA:**

Yanguas eta Miranda, 1  
31002 – Iruña  
Tel.: 948 20 71 40  
Fax: 948 20 71 41  
[ccspamplona@consorseguros.es](mailto:ccspamplona@consorseguros.es)

- 4.- Zuzenean aseguru bitartekariari.

**B) Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

- Aseguru-polizaren datuak: erakunde aseguratzalea eta poliza-zenbakia.
- Kalte-ordain eskaera telefonoz egin duen pertsonaren eta aseguratuaren datuak (persona desberdinak izanez gero): izen-abizenak edo arrazoi soziala; IFZ edo IFK; helbidea eta harremanetarako telefonoa.
- Bankuko datuak kalte-ordaina ordaintzeko: kontu korrontearen kodea (20 zenbaki), banku-entitatearen zenbakiarekin; bankuko bulegoaren zenbakia; kontrol-digituak; kontuaren zenbakia.
- Ibilgailuetan kalterik izanez gero: autoaren marka, modeloa eta matrikula. Ibilgailua tailer batera eraman bada, komeni da tailerraren izena, helbidea eta telefonoa ematea, peritazio-lanak errazteko.

Kalte-ordain eskaera Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren bulegoren batean egiten denean, "Kalteen Komunikazio Orria" (Eranskina) inprimakia erantsiko zaio aurreko dokumentazioari.

### **C) Kontuan izan beharreko aholkuak partzuergoko peritua iritsi bitartean:**

- Kaltetutako ondasunen hondakinak gordetzea, perituari erakusteko; hori posible ez denean, argazkiak egitea, hondakinak erretiratu aurretik.
- Fakturak gordetzea, konponketaren bat egin behar izan bada premiaz.
- Peritu tasatzailea etortzen denerako, eskura edukitzea honako hauek: kalteen konponketarako aurrekontuak eta fakturak; polizaren eta prima-ordainketaren erreziboaren bina ale (originala eta kopia, perituari bi dokumentu horien kopia emateko); eta kalte-ordainaren abonurako kontua (20 digitu) agertzen den errezibo edo banku-dokumentua.

Amaitzeko, kalteak izan badituzu eta eragozpenen bat baduzu ezbeharraren berri emateko, harremanetan jar zaitezke Donostiako edo Iruñeko gure bulegoekin.